| | | |
|---|---|---|
| IBARRAKO UDALA<br>GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA | **Espedientea:** / Expediente: | Deialdi bidezko diru-laguntzak. 15000 arte<br>**2023WDDT0003** |
| | **Sarrera-erregistroa.:** / Registro de entrada: | 000000 - |
| | **Dekretu-zk.: /** Nº Decreto: | 397/2023 |
| | **Titularra:** / Titular: | IBARRAKO UDALA |
| | **Ordezkaria:** / Representante: | |
| | **Gaia:** / Asunto: | EUSKARA: 2022-2023 ikasturterako dirulaguntzak |

<table>
<tr><th>397/2023 ALKATE-DEKRETUA</th><th>DECRETO DE ALCALDIA 397/2023</th></tr>
<tr><td>EUSKARA arloan 2023 urterako dirulaguntzak emateko, instrukzio organoak, Ibarrako Udalak Euskara dirulaguntzen oinarriak aurkeztu ditu.</td><td>El ayuntamiento de Ibarra presenta las bases de la subvención Euskara para el periodo 2023 en el ámbito de EUSKERA.</td></tr>
<tr><td>Kontuhartzailearen eta Idazkariaren txostenak kontutan izan dira.</td><td>Vistos los informes de Intervención y Secretaria.</td></tr>
<tr><td>Oinarri hauen helburua 2023. urtean Ibarran EUSKARA arloan emango diren eta hurrengo paragrafoan aipatzen diren dirulaguntzek eman ahal izateko eta arautzeko oinarri zehatzak ezartzea da.</td><td>Es objeto la redacción de las bases específicas que regulen la concesión de subvenciones por parte del ayuntamiento de Ibarra en el área deEuskera durante el periodo 2023 y señaladas en el párrafo siguiente.</td></tr>
<tr><td>Diruz lagundu daitezkeen ildo eta programatzat jo daitezke 2022-2023 ikasturtean euskara ikasten edo hobetzen diharduten ibartarrei dirulaguntzak.</td><td>Se consideraran como líneas y programas subvencionables las subvenciones dirigidas a los ibartarras que estén estudiando o perfeccionando el euskera en el curso 2022-2023.</td></tr>
<tr><td>Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak bertan jasotako arauek arautuko dituzte eta baita aplikagarri diren eta indarrean dauden Ibarrako Udalaren diru-laguntzen 2020-2023 Plan Estrategikoa, Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzei buruzko Legeak eta garapen erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak ezarritakoaren babesean.</td><td>Las subvenciones previstas están reguladas por su normativa así como el plan estratégico de subvenciones del ayuntamiento para el periodo 2020-2023 y la Ordenanza General de subvenciones, al amparo de la ley 38/2003 de 17 de noviembre, general de subvenciones y el Real Decreto 887/2006 de 21 de julio que aprueba el reglamento de desarrollo .</td></tr>
<tr><td>EUSKARA departamentuaren aurtengo aurrekontuetan 8.000 euro daude jasota.</td><td>Existe un partida de 8.000 en el presupuesto del departamento de EUSKARA.</td></tr>
<tr><td>Alkateari dagokio diru laguntza hauen oinarri arautzaileak onartzea.</td><td>Corresponde al alcalde la aprobación de las bases reguladoras de estas subvenciones.</td></tr>
<tr><td>Dirulaguntzen ildo horiek Ibarrako Udalaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude</td><td>Las directrices de dichas subvenciones están recogidas en el plan estratégico de subvenciones para el periodo 2020-2023.</td></tr>
<tr><td>Hori horrela, EUSKARA departamentuburuak proposatuta, eta eztabaidatu ondoren,</td><td>Tras haber sido debatido y propuesto por el jefe del departamento EUSKARA</td></tr>
</table>

Ondorioz, Alkatetza honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21.1

En su virtud, Esta Alcaldía, en uso de las facultades que se me atribuyen, de acuerdo con el

artikuluaren, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginaren art.24 artikuluaren eta Toki Erakundeen Antolakuntza, Jardunbide eta Araubide Juridikoaren 41 artikuluaren arabera esleitzen zaizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa

art. 21.1 de la Ley 7/85 reguladora de las Bases de Régimen Local, art.24 del Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local, y art. 41 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales

**EBAZTEN DU**

**LEHENA.-** Onartzea 2022-2023 ikasturtean euskara ikasten edo hobetzen diharduten ibartarrei Ibarrako Udalak emango dituen eta eranskinetan jasotzen diren dirulaguntzen oinarriak eta eskaera orria .

**BIGARRENA.-** 2023ko deialdirako 8.000 euroko gastua baimentzea, 1 10.335.00.481.00 2022 kontu sailari egotziko dena

**HIRUGARRENA.**- Argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Ibarrako web orrialdean oinarriak interesatuek argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita egunetan eskaerak aurkez ditzaten. Erabaki honen bidez onartutako oinarri arautzaile hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren hurrengo egunetik aurrera izango dute eragina.

**LAUGARRENA.-** Erabaki honen berri eman hurrengo Udalbatzan.

**RESUELVE**

**PRIMERO.-** Aprobar las bases de las subvenciones para los alumnos que estén estudiando o perfeccionando el euskera en el curso 2022-2023 que se concretan en el anexo, asicomo la hoja de solicitud de las mismas. .

**SEGUNDO.- Autorizar el gasto de 8.000 € imputable a la partida 1 10.335.00.481.00 2022.**

**TERCERO**.- Publicar las bases en el BOG y la web del ayuntamiento a fin de que los interesados puedan presentar sus solicitudes en el plazo de contado a partir de su publicación. Estas bases reguladoras entrarán en vigor a partir del día siguiente a de su publicación en el BOG.

**CUARTO.-** Dar cuenta de este decreto en la próxima sesión plenaria.

Ibarran, 2023ko ekainaren 22an

Igor Zapirain Lizarribar

Alkatea

## 1. ERANSKINA

### DEIALDIAREN

### Hitzaurrea

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarrienak (TAOL), III. Kapituluko 25. eta ondorengo artikuluetan, udalen eskumenen artean esleitzen ditu eskumena

Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzei buruzko Legeak eta garapen erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak xedatzen dute, tokiko udalen dirulaguntzak arautzeko oinarriak ezarri beharra dagoela, eta horiek aurrekontua gauzatzeko oinarrien markoan

## ANEXO 1

### CONVOCATORIA

### Preámbulo

La ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local (LBRL) en su capítulo III, articulo 25 y siguientes determina entre las competencias municipales las competencias referidas.

La ley General de subvenciones 38/2003, de 17 de noviembre, en su artículo 17, y su reglamento de desarrollo aprobado por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, regulan la necesidad de la determinación de las bases para las subvenciones de las corporaciones municipales así como la necesidad de

onetsi behar direla, dirulaguntzen ordenantza nagusi baten bidez edo dirulaguntzen hainbat modalitatetarako ordenantza espezifiko batenbidez.

aprobación de las mismas en el marco de las bases de aprobación de los presupuestos, por medio de una ordenanza general o por medio de una ordenanza específica para diversas modalidades de subvenciones.

2013ko ekainaren 7ko GAOko 108. zenbakian argitaraturik dagoen Ibarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak arautuko ditu dirulaguntza hauek emateko baldintza eta prozedura.

La Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Ibarra, publicada en el BOG nº 108, del 7 de junio de 2013, regulará las condiciones y procedimiento para la concesión de las presentes subvenciones.

2020ko otsailaren 26ko GAOko 38. zenbakian argitaraturik dagoen 2020-2023 urte bitarterako Ibarrako Udalaren dirulaguntzen Plan Estrategikoan xedatutakoari jarraiki egiten da honako deialdia.

El Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Ibarra 2020-2023, publicado en el BOG nº 38, del 26 de febrero de 2020, regulará la presente convocatoria.

Dirulaguntzak iragarki, norgehiagoka, objektibotasun eta berdintasun printzipioen arabera emango dira, Herri Administrazioa haiei atxikita baitago, besteak beste, sustapen-jarduerak gauzatzerakoan.

Las subvenciones se concederán respetando los principios de publicidad, concurrencia, objetividad e igualdad ya que la administración pública se adhiere a las mismas en el momento de realización de las actividades promovidas.

**1. Xedea**

Oinarri hauen helburua da euskara ikasten edo hobetzen diharduten Ibartarrei dirulaguntza publikoak ematea.

Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak bertan jasotako arauek arautuko dituzte eta baita aplikagarri diren eta indarrean dauden Ibarrako Udalaren dirulaguntzen 2020-2023 Plan Estrategikoa, Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra, azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzei buruzko Legeak eta garapen erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak ezarritakoaren babesean.

**1. Objetivo**

Las presentes Bases tienen como objeto la regulación de las subvenciones públicas anuales para el aprendizaje y perfeccionamiento del euskera entre los Ibartarras.

Las subvenciones previstas en estas Bases específicas ser regirán por las normas establecidas en la misma, así como por el resto de disposiciones vigentes que resulten de aplicación a las subvenciones otorgadas (Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Ibarra 2020-2023, Ordenanza General de Subvenciones delAyuntamiento de Ibarra, Ley de Subvenciones 38/2003, de 17 de noviembre, y reglamento de desarrollo de la misma aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio).

**2. Dirulaguntzak emateko prozedura.**

Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagokako erregimenean izango da eta printzipio hauen arabera egingo da: Publizitate, objetibotasun, gardentasun, berdintasun eta diskriminaziorik eza. Eskumeneko organoak onartutako deialdi publikoaren bidez egingo da.

**2. Procedimiento de concesión de las subvenciones**

El procedimiento de concesión será en régimen de concurrencia competitiva de las ayudas reguladas en estas bases, de acuerdo con los principios de publicidad, objetividad, transparencia, igualdad y no discriminación, mediante convocatoria pública aprobada por el órgano competente para la concesión.

**3. Dirulaguntzaren zenbatekoa.**

Deialdi honen bidez emateko zenbatekoa 8.000 eurokoa da, eta 1 10.335.00.481.00 2022 partidari

**3. Cuantía de la subvención**

La cantidad destinada a la ejecución de la presente convocatoria de subvenciones es de 8.000 € euros,

egotziko zaio.

Dirulaguntza emateko orduan zehaztuko da bakoitzari emango zaion zenbatekoa edota adjudikazio prozeduran lortutako puntuazioa.

Zenbateko hori benetakotzat joko da, eta ez dio erreferentziarik egingo kostu osoaren zatikatze edo portzentajeari.

Diruz lagundutako jardueraren zenbatekoa, dirulaguntzak estaltzen ez duena, onuradunaren beraren funtsen bitartez estaliko da edo beste dirulaguntza edo baliabideen bitartez, beti ere, azken hori bateragarria baldin bada oinarri hauetan zehaztutakoarekin. Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da izango inolaz ere, bera bakarrik edo beste dirulaguntzekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostuaren %100 baino handiagoa.

Salbuespen modura, aurrekontua izateagatik edo beste arrazoi bategatik, organo emaileak dirulaguntzen zenbateko osoaren hainbanaketaegin dezake onuradunen artean, aurretik froga- txostena eginda.

**4. Diruz lagundu daitezkeen ildo eta programak.**

Diruz lagundu daitekeen programatzat jo daiteke:

*2022-2023 ikasturtean euskara ikasten edo hobetzen diharduten ibartarrei dirulaguntzak.*

Oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzen emakidak ez dakar berarekin udalaren eta dirulaguntzaren onuradun den pertsona edo elkartearen artean inolako izaera zibileko, lan izaerako, administrazio izaerako edo bestelako izaerako kontratu-harremanik.

**5. Onuradunak**

Dirulaguntza hauen eskatzaileek honako baldintzak bete beharko dituzte onuradun izateko:

a) Ibarran erroldatuta egotea, gutxienez, ikasturtea hasi baino sei hilabete lehenagotik.

b) Hamasei urte (16 urte) beteak izatea.

c) Egoitza soziala Ibarran duen enpresa edo entitate batean lanean aritzea gutxienez ikasturtea hasi baino sei hilabete

con cargo a la partida 1 10.335.00.481.00 2022.

Mediante el acto de concesión se determinará la cuantía individualizada de la subvención a otorgar y/o se determinará la puntuación obtenida en los criterios de adjudicación.

Dicha cuantía se considera como un importe cierto y sin referencia a un porcentaje o fracción del coste total.

El importe de la actividad subvencionable no alcanzado por la subvención que se otorgue será cubierto con fondos propios del beneficiario o con la financiación procedente de otras subvenciones o recursos siempre que esto último sea compatible, conforme lo previsto en estas Bases. El importe de la subvención, en ningún caso, podrá ser de tal cuantía, que aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el 100% del coste de la actividad o inversión subvencionada.

Excepcionalmente, por razones de disponibilidad presupuestaria u otras debidamente motivadas, el órgano concedente, previo informe justificativo, podrá proceder al prorrateo entre los beneficiarios de la subvención, del importe global máximo destinado a las subvenciones.

**4. Líneas y programas subvencionables.**

Se considerarán como programa subvencionable:

*Las subvenciones concedidas a los y las ibartarras que estén estudiando o perfeccionando el euskera en el curso 2022-2023.*

La concesión de las subvenciones a que se refieren las presentes bases, no implicará relación contractual alguna de carácter civil, laboral, administrativo o de cualquier otro tipo entre el Ayuntamiento de Ibarra y la persona o entidad beneficiaria de subvención.

**5. Beneficiarios**

Podrán optar a las subvenciones, las personas que cumplan los siguientes requisitos:

a) Estar empadronadas en Ibarra, con una anterioridad mínima de seis meses antes del inicio del curso.

b) Tener cumplidos dieciseis años (16 años)

c) Trabajar en un establecimiento o empresacon residencia social en Ibarra al menos 6 meses antes del comienzo del curso.

lehenagotik

d) Ikastaroa edo ikasturtea amaitu artean Ibarran erroldatuta edo lanean jarraitzea.

e) 2022ko urritik 2023ko ekainaren 30era bitartean euskaltegi, ikastetxe edo barnetegiren batean euskara ikastaro batean parte hartzea.

f) Matrikula ordaindu izana.

g) Ikastaroa bukatzea eta gutxieneko aprobetxamendua izatea. Hau ikastaroajaso den Euskaltegiak, ikastetxeak edo barnetegiak egindako ziurtagiri bidez justifikatuko da.

Ikastaroa Aitzol euskaltegian egin bada, euskaltegiak berak igorriko dio Udalari txostena ikasturtea amaitutakoan.

h) Gutxienez, %85eko asistentzia izatea.

i) Dirulaguntzak jasotzeko inolako debekuren batean sartuta ez egotea. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan zehaztutakoak izango dira.

Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea.

d) Seguir empadronado o trabajando en Ibarra hasta la finalización del curso o cursillo.

e) Haber realizado algún curso o cursillo de euskera en un euskaltegi, centro de estudios o barnetegi desde octubre 2022 hasta el 30 de junio de 2023.

f) Haber abonado la cuantía de la matrícula.

g) Finalizar el curso o cursillo y tener un aprovechamiento mínimo, que se justificará mediante certificado emitido por el Euskaltegi, centro escolar o barnetegi donde se imparte el curso.

Si el curso o cursillo ha sido realizado en el euskaltegi Aitzol de Tolosa, el certificado será enviado directamente al Ayuntamiento por el propio euskaltegi.

h) Cumplir, por lo menos, con una asistencia del 85%.

i) No estar incurso en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones, señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre.

Declaración responsable de hallarse al corriente de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.

**6. Baztertuak**

Deialdi honen aplikazio eremutik kanpo gelditzen dira ondorengoak:

a) Epai irmoaren bidez dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzera kondenatuak izan direnak.

b) Lehiaketa eskaera egin dutenak, edozein prozeduretan kaudimengabeak jo direnak, lehiaketan egonik esku-hartze judizialaren mende daudenak edo lehiaketa legearen arabera ezgaituak izan direnak, beti ere sententzian jasotako inhabilitazio epea amaitu ez bada.

c) Administrazioarekin eginiko edozein kontratu bertan behera uzteko errudun aitortuak izan direnak.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza

**6. Exclusiones**

Quedan excluidas del ámbito de aplicación de la presente convocatoria las siguientes:

a) Personas condenadas mediante sentencia firme a la pena de pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas.

b) Personas que han solicitado la declaración de concurso, haber sido declaradas insolventes en cualquier procedimiento, hallarse declaradas en concurso, estar sujetas a intervención judicial o haber sido inhabilitadas conforme a la Ley Concursal sin que haya concluido el periodo de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación de concurso.

c) Haber dado lugar, por causas de las que hubiesen sido declaradas culpables, a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración.

d) Cuando la persona física, el administrador de

sozietateetako administratzaileak edota beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkaritza dutenak sartuta daudenean kontratatzeko bateraezintasun kasuren batean, bakoitzean aplikagarri den legeria espezifikoaren arabera; edo Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak erregulatzen dituen hautapenezko karguren bat izatea.

e) Zerga obligazioak edo gizarte segurantzari buruzkoak ez betetzea, dirulaguntza emateko ebazpen proposamena ematerakoan.

f) Beren zerga egoitza dagoenean erregelamenduz paradisu fiskaltzat kalifikatutako herrialde edo lurralde batean.

g) Udal honek edo bere erakunde autonomoek emandako dirulaguntzak itzuli behar izateagatik sortutako obligazioak ordaindu gabe dituztenean.

h) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharretan egonik, ordainketak ez egitea (Dirulaguntza itzultzeko prozeduran zordun gisa).

i) Ebazpen irmo bitartez dirulaguntzak jasotzeko zigortua izatea dirulaguntzen Lege Orokorra edo Zergei buruzko legeari jarraiki.

j) Entitatearen ordezkariren baten bateraezintasun legala, Udaleko pertsonal edo hautatuekin.

k) Era berean, ezingo da dirulaguntzarik eman, Ibarrako Udalarekin dituzten zorrengatik premiamendu bidezko kobrantza prozeduretan sartuta edo udal entitate honekin zerga obligazioak bete gabe dauzkaten partikularrei edo entitateei, aipatu zorrak ordaindu eta kitatu arte.

l) Beren jardueraren bitartez, diskriminazioren bat bultzatzen duten erakunde edo pertsonak.

la sociedad mercantil o los representantes legales de otras personas jurídicas estén inmersos en alguna causa de incompatibilidad para contratar, en virtud de la legislación específica aplicable en cada caso, o bien, tener algún cargo electoral regulada en la Ley Orgánica 5/1985 de 19 de junio sobre Normativa Electoral General.

e) No hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

f) Cuando su residencia fiscal se halla en un país o territorio calificado por reglamento como paraíso fiscal.

g) Cuando se halla en la obligación de reintegro de las subvenciones concedidas por este ayuntamiento o por sus entidades autónomas.

h) No hallarse al corriente de pago de obligación por reintegro de subvenciones (en condicióndé deudor por resolución de procedencia de reintegro).

i) Haber sido sancionado mediante resolución firme con la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones según la Ley General de Subvenciones o la Ley General Tributaria.

j) Incompatibilidad legal de algún representante de la entidad, con personal o electos del ayuntamiento.

k) No podrá concederse subvención alguna a particulares o entidades que se encuentren en procedimientos de cobro por vía de apremio por deudas con este ayuntamiento, o bien tengan pendientes obligaciones fiscales, hastaque se liquiden dichas deudas.

l) Entidades o personas que a través del carácter social o personal de su actividad promuevan alguna discriminación.

**7. Onuradunen eginbeharrak**

Onuradunen betebeharrak hauek dira:

a) Dirulaguntzak emateko arrazoi den xedea betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera burutzea edo jokabidea hartzea.

b) Hizkuntza irizpideak betetzea: Ibarrako udalean eta udalerrian euskararen erabilera

**7. Obligaciones de los beneficiarios/as**

Estas son las obligaciones:

a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto y realizar la actividad que fundamenta la concesión de la subvención.

b) Cumplir los criterios lingüísticos: En virtud del art. 32.1 de la Ordenanza municipal sobre

normalizatzeko arauak ematen dituen Udal Ordenantzaren 32.1 artikuluaren arabera, honako hizkuntza irizpideak bete beharko dituzte:

Ibarrako Udalarengandik dirulaguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta erakundeek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek diruz lagundutako beren jardunean argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz behintzat idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte. Era berean, ospakizun zehatzetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak euskaraz ere eman beharko dituzte.

Aurreko paragrafoko elkarte, erakunde, pertsona fisiko edo juridikoek euskaraz eta erdaraz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko diote lehentasuna.

Dirulaguntza kudeatzeko eskumena duten organoek bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte onuradunek puntu honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko.

c) Diruz lagundutako proiektu edo jardueran genero ikuspegia txertatzea.

d) Udalaren aurrean dirulaguntza emateko jarritako baldintzak betetzen dituela, jarduera burutu eta helburua bete dela egiaztatzea.

e) Dirulaguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen jarduerak onartzea, baita eskumena duten kontroleko organoek, nazionalek nahiz komunitarioek, egiaztatzeko edo finantzen kontrolerako egin dezaketenbeste edozein egiaztapen jarduera ere. Jarduera horietan eskatutako informazio guztia eman beharko du.

f) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak lortuz gero, dirulaguntza ematen duen organoari jakinaraziko dio. Jakinarazpen hori bestelako laguntzen berri izan bezain pronto emango da, edo gutxienez onartutako dirulaguntzari emandako aplikazioaren egiaztapena egin baino lehen.

g) Eskura izango ditu: kontabilitate liburuak, erregistro eguneratuak, eta onuradunari kasu bakoitzean aplika dakiokeen merkataritza legedian eskatutako terminoetan ikuskatutako bestelako agiriak; baita dirulaguntzak arautzen

normas para el fomento y la normalización del uso de euskera de Ibarra, se deberán cumplir los siguientes criterios lingüísticos:

Las asociaciones, entidades, personas físicas o entidades jurídicas que perciban alguna ayuda del Ayuntamiento de Ibarra, deberán escribir ydar a conocer por lo menos en euskara todos sus escritos, anuncios, avisos y demás documentos. Del mismo modo, los avisos que se transmitan a través de altavoces en celebraciones concretas, se deberán realizar también en euskara.

Las asociaciones, entidades y personas físicas o jurídicas señaladas en el artículo anterior, deberán priorizar las de euskara en las manifestaciones que realicen en euskara y castellano, y sobre todo, en las que se realicende forma oral.

Los órganos facultados para gestionar la ayuda deberán adoptar las medidas necesarias para verificar el cumplimiento por parte de los beneficiarios de lo estipulado en este punto.

c) Incluir la perspectiva de género en el proyecto o actividad subvencionada.

d) Justificar ante el ayuntamiento el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión de la subvención.

e) Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, tanto nacionales como comunitarios, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

f) Comunicar al órgano concedente la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, entodo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

g) En su caso, disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, así como cuantos

dituen oinarrietan eskatutako kontabilitate egoera eta erregistro zehatzak ere; honela egiaztapen eta kontrol ahalmenak era egokian gauzatzea bermatzen da eta.

h) Jasotako dirulaguntzak zertan erabili dituen egiaztatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduueretarako gai izan daitezkeen bitartean behintzat.

i) Dirulaguntza jasotzen duen jardueraren berri emateko neurriak hartzea; hau da, onuradunak Ibarrako udalaren dirulaguntza jasotzen duen programa, jarduera edo ekintzenfinantzazioaren izaera publikoaren publizitatea egin beharko du.

j) Oinarri hauetan aurreikusitako baldintzaren bat gertatuz gero, jasotako dirua itzuli egin beharko du.

k) Dirulaguntza ematerakoan kontuan hartutako edozein inguruabar aldatu egingo balitz, dirulaguntza ematen duen organoari jakinarazi behar zaio.

l) Dirulaguntza emateko eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen, norgehiagoka kasuetan edo gainerakoetan, erabakitzeko proposamena egin baino lehen, egiaztatzea zerga obligazioak betetzen dituela Gizarte Segurantzarekin, eta gainerakoekin, eta eskatzailearen nortasuna egiaztatzea.

Halere, onuradunari urte osoan emandako dirulaguntzen kopuru metatuak ez baditu 1.000 euro gainditzen, aipatu obligazioak betetzen dituela egiaztatzeko, alderdi horien gaineko erantzukizun aitorpena aurkeztu behar du.

Izaera juridiko zehatzik ez duten taldeetan, elkarte edo antzekoetan baldintza hau egiaztatu beharko da taldea ordezten duen pertsonaren zinpeko aitortzearen bidez eta aitortuko du ez duela zorrik administrazioarekin. Egiaztatze hau loturik dago, gainera dirulaguntza arautzen duten gainerako arauekin.

m) Dirulaguntzen xede diren programak, jarduerak, inbertsioak edo jarduketak Ibarrako Udalak finantzatzen dituela egoki zabaltzea bidezko publizitatea emanez, baldin eta betebehar hori dagokion deialdi, hitzarmen edo

estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras de las subvenciones, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

h) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

i) Adoptar las medidas de difusión de la actividad subvencionada, esto es, la persona beneficiaria deberá dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de las actividades o actuaciones que sean objeto de subvención por parte del Ayuntamiento de Ibarra.

j) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en estas bases.

k) Comunicar al órgano concedente la modificación de cualquier circunstancia que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

l) Acreditar con anterioridad a la expiración del plazo máximo de presentación de solicitudes, en el caso de concurrencia competitiva, o previamente a la resolución de la concesión en el resto de los casos, que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias de cualquier tipo, incluidas las de carácter local y con la seguridad social y a acreditar la personalidad del solicitante.

Sin embargo, en el caso de que la cantidad de la subvención concedida al beneficiario/a durante todo el año no supere los 1.000€, deberá presentar declaración responsable a fin de acreditar el cumplimiento de dichas obligaciones.

En el caso de grupos que no tengan una personalidad jurídica concreta, fundación, asociación o similar, este hecho deberá ser justificado mediante la declaración jurada de la persona representante del grupo o asociación, indicando la no existencia de deudas pendientes con la Administración.

m) Difundir a través de la adecuada publicidad que los programas, actividades, inversiones o actuaciones objeto de subvención son financiados por el ayuntamiento, siempre y cuando dicha obligación sea exigida en la

ebazpenean exijitu bada.

n) Jasotako funtsak itzultzea, Ibarrako dirulaguntzen ordenantza orokorrean xedatutako kasuetan.

## 8. Dirulaguntzen bateragarritasuna

1. Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira bai beste Herri Administrazioek emandako dirulaguntzekin bai erakunde publiko nahiz pribatuek emandakoekin, helburua eta xedea berberak izanda ere.

2. Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako dirulaguntza ezin izango da diruz lagundutako jardunen kostua baino handiagoaizan. Horrelakorik gertatuz gero, muga hori gainditzearren, ematekoa den dirulaguntza Oinarri hauen kargura murriztuko da.

## 9. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Diruz lagundu daitezkeen ildo eta programatzat jo daitezke:

- Matrikulazio gastuak

Diruz lagundutako gastutzat ez dira joko diruz lagundutako jardueraren izaerari dagozkion eta oinarri hauetan ezarritako epeen barruan egiten diren honako hauek:

- Joan-etorriak.
- Materiala.
- Otorduak
- Egonaldiak

Ibarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, diruz lagundutako proiektua aurrera eramateko lege edo finantza-aholkularitza gastuak, notario- gastuak eta peritu-gastuak diruz lagundu daitezke baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin harreman zuzena badute eta berorren prestakuntza edo gauzatze egokirako ezinbestekoak badira.

Oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzen emakidak ez dakar berarekin udalaren eta dirulaguntzaren onuradun den pertsona edo elkartearen artean inolako izaera zibileko, lan izaerako, administrazio izaerako edo bestelako izaerako kontratu-harremanik.

convocatoria, convenio o resolución correspondiente.

n) Devolver los fondos percibidos en los casos en los que así disponga la ordenanza general de subvenciones.

## 8. Compatibilidad de las ayudas

1. Las ayudas previstas en las presentes bases serán compatibles con las subvenciones otorgadas por otras Administraciones Públicas o entidades públicas y privadas que coincidan en su objeto o en las que se contemple la misma finalidad.

2. En el caso de concurrencia con otras ayudas, el importe de la subvención no podrá superar el coste de las actuaciones subvencionadas. En dicho supuesto, se procedería, al objeto de no rebasar dicho límite, a la reducción de la ayuda con cargo a las presentes bases.

## 9. Gastos subvencionables.

Se considerarán como líneas y programas subvencionables :

- Gastos de matrícula.

No se considerarán gastos subvencionables los siguientes gastos que correspondan a la naturaleza de la actividad subvencionada y se realicen en el plazo establecido en las presentes bases:

- Desplazamiento
- Material
- Comida
- Estancia

De acuerdo con lo previsto en el art. 28 de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Ibarra, los gastos de asesoría jurídica o financiera, los gastos notariales y registrales y los gastos periciales para la realización del proyecto subvencionado y los de administración son subvencionables si están directamente relacionados con la actividad subvencionada y son indispensables para la adecuada preparación oejecución de la misma.

La concesión de las subvenciones a que se refieren las presentes bases, no implicará relación contractual alguna de carácter civil, laboral, administrativo o de cualquier otro tipo entre el Ayuntamiento de Ibarra y la persona o entidad beneficiaria de subvención.

**10. Eskabideak eta aurkezteko epea.**

